

**JOSE MARIA JIMENO JURIO IKERTZAILE...**

## **JOSE MARIA JIMENO JURIO ZENAREN IKERKETA LANEN DOHAINTZA EUSKALTZAINDIARI**

Jose Maria Jimeno Jurioren ikerketa-lanen emaitzak Euskaltzaindiari eman zizkion haren familiak, 2005eko ekainaren 17an Iruñean izandako ekitaldian. Bertan izan ziren, Elena Aranguren eta Roldan Jimeno, ikertzaile eta ohorezko euskaltzainaren alarguna eta semea; baita Andres Urrutia euskaltzainburua, Andres Iñigo Onomastika batzordeko burua, zuzendaritzako kideak eta Onomastika batzordekideak ere.

Dohaintzari esker, Euskaltzaindiak Jimeno Juriok bildutako toponimia-fitxak eta Euskararen Historiaren gaineko lana eskuratuko ditu. Bere asmoa da fitxa horiek sailkatu eta digitalizatzea, Euskal Corpus Onomastikoan sartu ahal izateko. Digitalizatutako lanaren kopia bat Jose Maria Jimeno Jurio zenaren familiari emango zaio.

Esan bezala, bi atal nagusitan banatzen da dohaintza. Batetik –eta hau da atalik handiena– toponimia lanak dira: Nafarroako zenbait hiri eta ibarri eskainitako lau kutxa, beste bederatzi zendeei eta zenbait herrirri buruzkoak. Horiekin batera, Nafarroako toponimia nagusiari eta toponimia bereziari buruzko kutxa bana eta Orbaibarri eskainitako karpeta bat ere badira.

Bestetik, Nafarroan Euskararen historiari buruzko kutxa bat. Jakina da gai honetaz ere ikerketa ugari egin eta argitaratu zituela Jose Maria Jimeno Jurriok. Horietan ezagunena *Navarra, historia del euskera* liburua.

**JOSE MARIA JIMENO JURIO IKERTZIAILE  
ETA OHOREZKO EUSKALTZAINA ZENAREN TOponimia  
ETA EUSKARAREN HISTORIA IKERKETARAKO  
FITXATEGIAREN DOHAINTZA**

*Iruñea, Euskaltzaindiaren ordezkaritza,  
2005eko ekainaren 17a*

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Dohaintza hau dela eta, nabarmentzeko zenbait puntu:

Euskara mendetan zehar nafar gehienen hizkuntza bizia zela, datuen bidez, erakutsi nahi izan zuen Jose Maria Jimenok. Xede hori lortzeko artxibo asko arakatu zituen eta, horrela, euskarak Nafarroako hainbat eremutan utzi-tako arrastoak eta aztarnak azalarazi eta argitaratu.

Jose Maria Jimenok bazekien euskara bizirik egon zen eremuetako topónimiaren ikerketa diakronikoak, batetik eskualde eta garai bakoitzeko presenzia eta eragin linguistiko-kulturalak aurkitu eta aztertzeko bidea emanen zuela, eta, bestetik, euskal hitzak noiz desagertu edo desitxuratu ziren edota hitz erromantzeak noiz ordezkatu zituzten argituko zuela.

Artxibo lan izugarria egin zuen, ondoren filologoek eta linguistek azterketa linguistikoa egin zezaten. Garbi adierazi zuen berak, Euskaltzaindiak Onomastikako Lehen Jardunaldiak 1986an Gasteizen egin zituenean, bere lanaren xedea toponimoak sistematikoki eta zehaztasun kritikoz biltzea zela material horiek linguisten eskuetan uzteko.

Jose Mari Jimeno Jurio euskaltzain urgazle izendadu zuen Euskaltzaindiak 1987an. Garai hartan Nafarroako Gobernuak *Nafarroako euskal izendegia* egiteko eskatu zion Euskaltzaindiari eta lan hori zuzentzeko ardura eman zittaion. Eta bai egitekoa bete ere! 18 hilabete aski izan zituen fruituak emateko urte horietan Iruñeko eta Iruñerriko toponimia lanetan buru-belarri sarturik baitzegoen. Azken lan horren emaitza izan ziren Euskaltzaindiak argitaratu zituen *Onomasticon Vasconiae* Bildumako sei liburuki.

1991n ohorezko euskaltzaina izendatu zuten eta bere azken egunera arte Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeareen aholku-emaila izan zen.

Jose Mari Nafarroako toponomastika lanaren maisua, gidaria eta bultzatzailea izan da eta berea da Nafarroako euskarari buruzko historia diakroniko osoena. Haren ikerketa zientifikoari esker, ordu arte defendatu nahi izaten ziren hainbat estereotipo interesatu desegin zituen. Horretaz gain, berak erakutsi du egokien Nafarroako euskararen muga historikoak argitzeko irizpide nagusiak.

Bere lana da Jose Marik utzi digun ondarerik hoherena. Gehiena argitaratua daukagu, baina Roldanek –Haren semeak– erran berri duenez, epe labur batean haren lan osoa ikusteko zoria izanen dugu.

Elenak eta Roldanek herentzia kutuna Euskaltzaindiari emateko erabakia hartu dute, Jose Marik Nafarroako euskarari eskaini zion maitasunaren eta lanaren testigantza bizia, bere eguneroko lanean eta bere eskuz idatzitako fitxategietan ageri dena.

Jakina, esker onez hartzen ditugu, Jose Mariren presentzia Euskaltzaindian iraunazteaz gain, bai baitakigu argibide handia eman behar dietela Onomastika batzordeko lanei. Azken batean lan horiek Nafarroako herrira itzuliko dira, Jose Marik hainbeste lan egin eta hainbeste maitatu zuen lurralderra.



**DONACIÓN DE LOS FICHEROS DE TOPONIMIA Y DE LA  
HISTORIA DEL EUSKERA DEL QUE FUE INVESTIGADOR  
Y ACADÉMICO DE HONOR DE EUSKALTZAINDIA,  
JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO**

*Pamplona, Delegación de Euskaltzaindia,  
17 de junio de 2005*

*Andres Urrutia,  
presidente de Euskaltzaindia*

Con motivo de esta donación, quisiera remarcar lo siguiente:

Jose Mari Jimeno Jurío se propuso demostrar con datos y hechos la implantación que el euskera ha tenido en el devenir histórico de Navarra como lengua viva y vehículo de comunicación habitual entre gran parte de sus gentes. No dudó que alcanzaría dicho objetivo a través de la extracción y exposición pública del poso lingüístico que esta lengua había dejado en la tierra donde vivieron los que la hablaron. Poso convertido en pasado mudo en los fondos de los ricos archivos existentes en Navarra.

Ese sedimento lingüístico viene a constatarse fundamentalmente en la toponimia. Sabía Jose Mari que una investigación diacrónica de la toponimia en todo el espacio antaño vasco-hablante permitiría, por una parte, descubrir y analizar presencias e influencias lingüístico-culturales en cada época y comarca y, por otra, observar el momento de la regresión del euskera que se fue detectando en la desaparición de voces vascas, en la deformación de las mismas al tratar de acomodarlas a la lengua romance, o simplemente en la sustitución de voces vascas por voces romances.

Jose Mari se propuso como objetivo el trabajo de archivo y de campo, tratando de aportar todos los datos posibles con el fin de que posteriormente otros especialistas –filólogos y lingüistas– pudieran realizar el análisis lingüístico o trabajo de culminación. Así lo expuso él en las Primeras Jornadas de Onomástica de Euskaltzaindia, celebradas en Vitoria / Gasteiz en 1986, en las que presentó el proyecto de la *Toponimia de la Cuenca de Pamplona* para ser publicado en la colección *Onomasticon Vasconiae* de la Real Academia de la Lengua Vasca, al decir:

Tenía claro cuál sería el espacio geográfico del trabajo y la finalidad de mi aportación: recoger topónimos de forma sistemática y con rigor crítico, para poner esos materiales a disposición de los lingüistas.

Jose Mari Jimeno Jurío fue nombrado académico correspondiente en 1987. De inmediato recibió la propuesta de la dirección del trabajo que el Gobierno de Navarra había encargado a Euskaltzaindia: la elaboración del *Nomenclátor Euskérico de Navarra*. Su dedicación fue total, puesto que en 18 meses pudo presentar los resultados del mismo. Eran, por otra parte, los años en los que estaba plenamente dedicado a los trabajos de toponimia de Pamplona y su Cuenca, que fueron publicados en 6 volúmenes de la Colección *Onomasticon Vasconiae* de Euskaltzaindia.

El año 1991 fue nombrado académico de honor de Euskaltzaindia y hasta el final de sus días actuó de asesor de la Comisión de Onomástica de esta Institución.

Jose Mari ha sido maestro, guía e impulsor del trabajo de toponomástica en Navarra y ha realizado, a su vez, la historia diacrónica más completa que se conoce del euskera en Navarra. Con sus trabajos ha conseguido, por una parte, desmontar, a través de la investigación científica, ciertos estereotipos interesados y defendidos desde presupuestos no precisamente científicos y, por otra, ha establecido con claridad los criterios relativos a la presencia territorial y social del euskera en Navarra.

De Jose Mari nos queda su mejor herencia: su obra. Ya publicada en gran parte, pero que como ha anunciado Roldán –su hijo– recientemente, vamos a tener la suerte de contar en un corto plazo con la publicación de su obra global.

Elena –su mujer– y Roldán han decidido donar a Euskaltzaindia una herencia entrañable, el testimonio vivo del trabajo y del amor de Jose Mari por el euskera en Navarra, plasmada en el día a día de su trabajo, en estos ficheros escritos de su puño y letra.

Los recibimos con un inmenso agradecimiento, porque además de hacer viva y duradera la presencia de Jose Mari en Euskaltzaindia, estamos seguros de que van a propiciar mucha luz en los trabajos de nuestra comisión de Onomástica. Trabajos que revertirán en el pueblo de Navarra, por quien tanto trabajó y al que tanto aportó en vida Jose Mari.

# **JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍOREN TOPONIMIAKO ETA EUSKARAREN HISTORIAKO FITXATEGIAREN DOHAINTZA**

*Roldán Jimeno Aranguren*

José María Jimeno Juríoren ondare intelektual materiala hiru esparruetan sailka dezakegu:

1. Argitaratutako obra, orain *Pamiela argitaletxea*, Euskara Kultur Elkargoa eta Udalbiderekin batera *Obras completas* proiektuan atera behar duguna.
2. Etnografiaren esparruan eta tokian-tokiko ikerketari esker jasotako milaka fitxa. Bere egunean familiakook Eusko Ikaskuntzari eman genion, eta egun datu base batera pasatzen ari dira.
3. Eta gaur hemen biltzen gaituena: TOPONIMIAKO ETA EUSKARA-REN HISTORIAKO FITXATEGIA. Aurreko ez bezala, hemen agertzen diren materialak hein handi batean argitaratuta daude, baina iker-tzailearentzat balio handiko materiala da, alegia.

Eta Euskaltzaindia zergatik?

Alde batetik, bere leku naturala dela esan genezake, baina bestetik, arrazoi pertsonal garrantzitsua dago, bera Onomastikako batzordeko kidea izan baitzen.

Nire aitari, 60. hamarkadan, Artaxoako euskal toponimia aztertuz sortu zitzaion euskararekiko grina. Toponomastikarekiko interesa 1981. urtean berrresukatu zuen eta, orduan, artxiboetan egindako ikerketaren eta landa-azterketaren ondorioz *Asiain*, *Lizasoain* eta *Oltzako* toponimia argitaratu zuen. Handik gutxira, Euskaltzaindiak *Onomasticón Vasconiae* izeneko proiektu handia jarri zuen martxan; bertan, lehenengo lanak J. M. Jimeno Juríok Iruñerriko toponimiei buruz egindako monografiak izan ziren.

Euskaltzaindiaren liburu mardul horietan eta orain dohaintzan ematen ditugun fitxa hauetan ikusi ahal denez, prozedura aitzindaria erabili zuen: dokumentu iturriak hustu zituen, Erdi Arotik gaur egun arte, leku bakoitzeko biztanleei egindako elkarrizketa pertsonalekin osatuz. Emaitzak Iruñerriko zendeei eskainitutako sei liburukitan argitaratu zituzten: *Zizur* 1986; *Galar*,

1987; *Oltza*, 1989; *Itza*, 1990; *Antsoain*, 1992; *Iruñea*, 1994; azken hori Pataxi Salaberri Zaratiegirekin batera.

Proiektu honetatik kanpo, hainbat liburu eta artikulu idatzi zituen, eta Nafarroko Gobernuko *Nafarroa, toponimia eta mapagintza* izeneko makro-proiektua zuzendu zuen. Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzandiak elkarrekin bultzatu zuten *Nafarroako Herri Izendegia. Nomenclator euskérico de población de Navarra* (1990), eta gure egileak egindako material historikoenean ekarpena hor isladatzen da. Bertan agertzen den izen bakoitzaz dohaintzan ematen dugun fitxategian aurki dezakegu.

Euskaltzaindiak Jimeno Juríoren ekarpen eta lan toponomastikoak baloratu zituen, eta Ohorezko euskaltzain izendatu zuen 1991eko apirilaren 26an, nire amaren urtebetetzearen egun berean.

Ohore horren esker onaren adierazgarri dohaintza honek izan nahi du. Guztizt bat ohorea baita aitak hainbeste maite eta estimatzen zuen Euskaltzaindiak haren toponimiazko lanak jasotzea.

Baina, aipatu bezala, dohaintza honek beste sorpresa txiki bat dauka; kutsa bakar batean dagoena. Ikerketa toponomastikoarekin Jimeno Juríok euskara galdua zuen Nafarroaren euskalduntasuna agerian jarri zuen, eta hizkuntzaren atzerakadaren ikerketa historikoarekin prozesu horren ezagutza osatu zuen. Arlo honetan haren bibliografia oparoa da, liburu zein artikuluetan. Baino badago bat, dibulgazioaren ikuspegitik egindakoa, klasiko bat bihurtu dena: *Navarra. Historia del euskera* (1998). Liburu hau prestatzeko erabili zituen fitxak aipatutako kutxa horretan daude, eta hemendik aurrera Euskaltzaindiaren esku geldituko dira.

Mila esker.

Orain, erdaraz aritzen diren kazetarientzat, gaztelaniaz arituko naiz.

\* \* \*

## **DONACIÓN DE LAS FICHAS DE TOPONIMIA Y DE HISTORIA DEL EUSKERA DE JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO**

*Roldán Jimeno Aranguren*

El legado intelectual material de José María Jimeno Jurío puede ser clasificado en tres campos:

1. Su obra escrita, que en estos momentos se está recogiendo en el proyecto de la edición de sus *Obras completas*, de la mano de la editorial *Pamiela, Euskara Kultur Elkargoa y Udalbide*.

2. Miles de fichas elaboradas en base al trabajo de campo etnográfico que, en su día donamos a Eusko Ikaskuntza, y que en estos momentos están volcando a una base de datos.
3. Y lo que hoy nos reune aquí: el conjunto de fichas de toponimia y de historia del euskera. A diferencia del material entregado a Eusko Ikaskuntza, éste que donamos a Euskaltzaindia está en buena medida publicado, pero no por ello su valor deja de ser relevante para los investigadores.

¿Por qué Euskaltzaindia?

Por una parte cabría afirmar, en buena lógica, que se trata del lugar natural, pues la Real Academia es la institución veladora del euskera; pero, por otra parte, existe una razón personal mucho más importante, pues Jimeno Jurío formó parte de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia.

A mi aita le entró el regustillo por el euskera en los años 60, cuando investigó la toponimia vasca de su villa natal, Artajona. No recuperó el interés por la toponomástica hasta 1981, cuando fruto de la investigación de campo y de archivo publicó la toponimia de *Asiáin*, *Lizasoáin* y *Olza*.

Al poco tiempo Euskaltzaindia puso en marcha el ambicioso proyecto *Onomasticon Vasconiae*. Constituyen los primeros números de esta colección los trabajos del aita dedicados a los topónimos de la *Cuenca de Pamplona*.

Tal y como se puede apreciar en aquellos libros y en estas fichas que hoy donamos, utilizó una metodología pionera: vació sistemáticamente las fuentes documentales más importantes, desde la Edad Media a la actualidad, completando aquellos datos con entrevistas personales. Los resultados componen seis gruesos volúmenes, el último de ellos realizado junto con Patxi Salaberri. Además de este proyecto publicó diferentes libros y artículos sobre toponimia, y dirigió el macro-proyecto del Gobierno de Navarra *Navarra. Toponimia y Cartografía*. Ahí se plasma el *Nomenclátor euskérico de Navarra*, elaborado en 1990 fruto de la colaboración institucional entre el Gobierno de Navarra y Euskaltzaindia. Los materiales históricos que lo fundamentan ocupan otro de los cajones de esta donación.

Euskaltzaindia supo valorar la contribución al conocimiento de la toponomástica histórica de mi aita, y lo nombró el 26 de abril de 1991 *Euskaltzaina de honor*, curiosamente el día del cumpleaños de mi ama.

Muestra del agradecimiento familiar por aquella distinción es esta donación. Para nosotros es un honor que Euskaltzaindia –institución profundamente querida por mi padre–, reciba y custodie estas fichas.

Pero esta donación guarda también otra pequeña sorpresa en forma de caja que ya he anunciado. A través de la investigación toponomástica Jimeno

Jurío quiso poner de manifiesto la euskaldunidad histórica de las tierras donde se había perdido la lengua vasca. Y ese retroceso lo analizó también a través del análisis histórico, pues, al fin y al cabo, era de oficio historiador. En este segundo campo su bibliografía es abrumadora, tanto en libros como en artículos. Pero hay uno, realizado con afán divulgador, que se ha convertido en un clásico: *Navarra. Historia del euskera* (1998). Las fichas que elaboró para la preparación de esta obra se encuentran en esa caja.

Y por mi parte, en nombre de la familia, nada más. Simplemente reiterar nuestro agradecimiento a Euskaltzaindia por haber acogido esta donación con tanta ilusión y cariño.

# **JOSÉ MARÍA JIMENO JURIO IKERTZIALE ETA OHOREZKO EUSKALTZAINA ZENAREN TOPONIMIAKO FITXATEGIAREN DOHAINTZA**

## **BILDURIK**

Alde batetik, EUSKALTZAINDIAREN izanean ANDRÉS URRUTIA BADIOLA, euskaltzainburua,

Eta bestetik, ELENA ARANGUREN LUMBRERAS eta ROLDAN JIMENO ARANGUREN, JOSÉ MARÍA JIMENO JURIO zenaren alarguna eta semea,

## **ADIERAZTEN DUTE**

1. Jose Maria Jimeno Jurio ikertzaile eta ohorezko euskaltzain zenaren toponimia eta euskararen historia ikerketetako fitxategia Euskaltzaindiari emateko nahia.
2. Euskaltzaindiarentzat ohore handia dela nafar ikertzaile honen toponimia eta euskararen historia fitxategia jasotzea.
3. Euskaltzaindiak fitxategi hori sailkatu ondoren digitalizatzeko asmoa adierazi duela, eta lan hori amaitzen duenean, kopia bat dohaintza hau sinnatzen duten José María Jimeno Jurio zenaren familiakoei emanen diela.
4. Euskaltzaindiak bere onomastika lanetarako erabiliko duela dohaintza hau eta berari dagokiola honen aprobetxamendua.
5. Fitxategiak honako edukia dauka:

### **I. Toponimia**

#### *Kutxak*

1. Hiriak eta ibarrak I: Aezkoa-Ega.
2. Hiriak eta ibarrak II: Lizarra-Gipuzkoa.

3. Hiriak eta ibarrak III: Gulia-Olloibar.
4. Hiriak eta ibarrak IV: Orbaibar-Deierri.
5. Monograñkoia I: Iruñea.
6. Monografikoa II: Galar, 1 (zendea).
7. Monografikoa III: Galar, 2; Oltza (zendeak).
8. Monografikoa IV: Itza (zendea).
9. Monografikoa V: Antsoain (zendea).
10. Monografikoa VI: Buriata, Eguesibar, Uñarte, Atarrabia.
11. Monografikoa VII: Elortzibar.
12. Monografikoa VIII: Itzarbe ibarra.
13. Monografikoa IX: Tafalla, Erriberri, Beire.
14. Nafarroako toponimia nagusia.
15. Toponimia berezia.

*Karpeta*


Orbaibar.

## II. Euskararen historia


*Kutxa:*

Euskararen historia.


Hala jasota gera dadin, sinatzen dute agiri hau, ale bikoitzez, goian esandako toki eta egunean,



Andres Urrutia Badiola



Elena Aranguren Lumbreras



Roldan Jimeno Aranguren